

**1980/3/26.**

Lehergailuaren hotsak  
ekintza zorrotz arrotzak  
zuen gorputzak xehaturik  
mutuerazi abotsak

Nafarroatik Lapurdira  
Baionatik hilerrira  
malko dardar ezintasuna  
lurperuntz begira

Askatasun egarriak  
erreka asegarriak  
bat batean bihur zaizkigu  
odol iturriak

Azkenik amorrazia  
gure uzta eragotzia  
berlandatuko dugu zuen  
mezuaren hazia

Atxik azkeneko hatsa  
zuengan bait garamatza  
zabal dadin zuen eskaintza  
eta esperantza

Nahiz eta gu preso eman  
herriak hori lor dezan  
abertzalek azkeneko hitza  
oraino ez dugu erran

**HITZAK:** Xalbardin  
**MUSIKA:** E. Labegerie – Xalbardin

HIL EZ DA DEUS HILTZEN  
LABANEAN DOA EGUZKIA  
EZ DA HILTZEN EGUNA  
IRAGAN BAINO  
ZIMELDU ARREN LILIAK  
ZU GORPU ZAREN ARREN  
ZIMELDU ARREN LILIAK  
EZ DA EGUNA HILTZEN  
IRAGAN BAINO  
LABANEAN DOA EGUZKIA  
EZ DA DEUS HILTZEN HIL

**HITZAK:** Joseba Sarrionandia  
**MUSIKA:** Xalbardin

AGUR, AGUR, AGUR LAGUNAK  
ENTZUN GURE KANTUA.  
ZUEN UZTA HERRITARRENTZAT  
BAITA, BAITA, HAZIA.

KANTA, KANTA, KANTA GUREKIN  
ABOTS SAKON OZENEZ  
GURE KANTA ENTZULEENTZAT  
BAITA, BAITA, OTOITZA.

**AGURRA:** SCHIVEITZCOren «Sancta Maria» – euskaraz  
kantatzeko Xalbardinek egokitua


EBIHOTS



joxeba sarrionandia



joxemi zumalabe



xabier erro



balere bakalkoa



joan mari beltran



anjel g. katarain

## 1979/1/13 eta 1980

LORERIK SORTZEN EZ BADA ERE  
ZUEN EMANKIZUNAREN ONDORIOZ,  
AMODIOZ  
KANTARIARI ATERA ERAZI DIOZUE  
KANTUA:  
DOINUA

HITZEKIN NAHASIRIK DOA,

HOA  
ZOAZ

ZOAZTE PAKEAN BEDEREN  
PAKERIK EZ BAITA HEMEN

*Bihotzetik bururaino hanka esku dardarretan  
Sentipenaren ildoak kontzientzia bihurtzean  
Oharpen argi adierazgarri izaten dira benetan  
Agerkunde estimagarri sumarazten den unean*

*Barneko sentimenduak eman dion buruari  
Lan nekeza eta zaila dagokio kantuari  
Kanta sakona eskeini nahi diogu benetan gure herriari  
Edonor euskaldun gizon xehe bihur dadin abeslari*

HITZAK: Xalbardin  
MUSIKA: Jakes - Xalbardin

## 1973

EGUN XINTIAK ILUNA DAKAR  
ETA GU BETI ILUNTASUNETIK EZIN GARA AT  
ZERTARAKO NAHI DUGU EGUN XINTIA  
BAIT DAKIGU LAISTER ILUNA DATORRELA?  
HOBEA DUGU ARGIRIK GABE BIZI!!!

*Hegoaldeñik ekaitzaldiak kutsatua du iparra  
Haizerauntsiak trumoi tximistak euri eta kazkabarra  
Izurri honek berekin dakar erantzunaren deiarra  
Lapurrak jabe jabeak lapur oraingoz bizi beharra*

ZUEK APAL HOIK ISILPEN ZABILTZATENAK  
BORTXA GUZTIA ZUEN AURKA DUZUTENAK  
GOI MAILAKO PERTSONAK MESPRETXATZEN

ZAITUZTENAK  
HERRIKO INTELEKTUALAK BAZTERTZEN  
ZAITUZTENAK

JAINKO GUZTIEN MALDIZIO GUZTIAK  
AURKA DITUZUTENAK  
BENETAKO HERRIAK GLORIFIKATUKO ZAITUZTE!!!  
JARRAI ZAZUTE ZUEN EKINTZAK  
ZUEK MESPRETZAILEAK DEUSEZTUKO BAIT DITU

HITZAK: BALERE BAKAIKOA - Xalbardin  
MUSIKA: Xalbardin

## 1979/6/3

Hik maite hitunen landare eta lo-  
reak hazi daitezela eta beren hosto  
tarteetan estutu hiltzaileen birika ma-  
darikatuak akatu arte.

Hire eguzkia malkotan ikusi dinat  
negar malkoek ez bait lituzkete itoko  
hire heriotza lortu dutenen eztarriak.

HITZAK: Joxemi Zumalabek  
ARGIA astekarian  
MUSIKA: Jakes

————— Kanta dezagun...: MOZART (Eltzegorrek egokitua)

## 1976

HITZ HUTSEZ ETA PLASTIKOZKO DOINUZ  
TINTATURIKO GEREZI BELTZ HORREKIN  
JANTZI HAUTE  
HIRE KANTU MAITATUENAREN MARGOA ESTALIZ  
ETA ESKU ESKUBIAREN ERPURUAREN  
HATZAZAL LUZE PUNTADUN HORREN  
EZKER BIHOZKADAK ISILERAZIZ

*Egunerokoa den  
keria apurtuz  
Nire barnean hago  
belarririk sartuz  
muinak eta gogoak  
kantueta urtuz  
gure isiltasuna  
oihua bihurtuz*

*Sortuz geroz hiltzeko  
bizitzen hezia  
hilez geroz kantua  
bihurtu garraisia  
historia irentsiz  
esperantzaz ia  
biziarentzat eman  
bait huen bizia*

*kantuz bizi nahi eta  
kantuz nahi nuke hil  
kantua edozertan  
sakonki erabil  
kantutan nere penak  
edota pozak bil  
kantuan naizelarik  
hi nirekin habil*

HITZAK ETA MUSIKA: Xalbardin